

Medikuntza EHUn

Euskaraz ezin bada ikasi, mediku euskaldunak nola?

Medikuntzako graduazio ekitaldian ozen esan zuen ikasleak: Medikuntzako euskarazko adarrean ematen dugu izena, baina ezin dugu euskaraz ikasi, eta guk mediku euskaldunak izan nahi dugu. Leioako campusean lehen hiru urteak egiten dituzte, euskaraz. Bigarren zikloan, ezin ordea. Hizkuntza Planak dio urte honen hondarrean derrigorrezko irakasgai guztiak euskaraz irakatsi behar direla. Onenean, Donostia Unibertsitate Ospitalean, irakasgaien %71 dira euskaraz, okerreanean, Gasteizen, %0.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Alde handia dago batetik bestera, hau da, ez da gauza bera EHUKo Leioako campusean Medikuntzako hiru urteak ikastea ala hurrengo hirurak lau unibertsitate-ospitaleetako batean egitea. Leioan euskaraz ikas dezakete euskarazko adarrean izena eman duten ikasleak. Bigarren zikloan ospitaleetan ikasten dute. Ziurrenik, ikasleak poz-pozik

ariko dira orpoz orpo medikuekin. Ordea, salbu eta Donostiakoan, lantokiotan (Txagorritxun, Basurtun eta Gurutzetan), giroa erdalduna da eta ikasleek faktura ordaintzen dute.

Medikuntza euskaraz zergatik ezin den ikasi, ezin da bi esalditan azaldu ordea. Faktoreak asko dira. Hurrengo lerroetan giltza nagusiak emango ditugu.



Euskarazko adarra desagertzeko beldurra

Maria Fuentes Rodriguez 3. maila bukatzen ari da. Medikuntza Asanbladako kide gisa hitz egin digu. Euskarazko matrikulazioa beherantz doala dio. Aurreko Dekanotzak hala adierazi omen zien: beherantz segituz gero bi talde beharrean bakarria izango zen euskarazkoa. Euskarazko lerroa arriskuan ikusten dute: “Presio demografiko handia daukagu, Espainiar Estatuko edonork lor dezake plaza EHUn, jan egiten gaituzte, eta euskarazko plaza kopururik ez dago finkatuta. 300 ikasle hartuko badira, adibidez, zergatik ez gorde euskaraz 150?”. Erantzuna berak ere badaki: EHU Espainiar Estatuaren mende dago eta ezin da euskarazko Medikuntza gradua egin. Fuentesek aitortu du selektibitatea euskaraz egiten duen ikasle dezentek gaztelaniaz ikastea erabakitzen duela. Ikasleak badaki Medikuntzako bigarren zikloa gaztelaniaz egin beharko duela neurri handi batean, BAME azterketa (Barneko Medikun Egoiliar) ere gaztelaniaz, eta lantokian ere, Osakidetzan, berdin. “Dekanotzari badagokio matrikulazioa euskaraz sustatzea, baina ez dago horretarako estrategiarik”.

Itziar San Martin Euskarako eta Elea-niztasuneko dekanorde berria da. Jon Zaratek bi urte daramatza Euskararen arloko errektoreordetzan. Haien ustez euskarazko matrikulazioa ez doa beherantz. Haiek emandako datuen arabera, azken bost urteotan batez bestekoa

111 ikasle izan da (guztira 280 inguru), gehienean 119 eta gutxienean 100. San Martinen ustez, ikasleek 100eko kopurua dute buruan eta susmoa izan dute talde bat galduko dutela: “Esan genien ez dugula talde bat ezabatuko. Diskriminazio positiboa egiten da, 95 ikasle balira ere ahalegin guztiak egingo genituzke bi talde ateratzeko”. San Martini euskaldunak gaztelaniazko lerroan matrikulatzeaz galdetu diogu. Bere iritziz, uste okerrak dituzte. Euskaraz ikastea ez da desabantaila, nahiz eta gero gaztelaniaz ikasten jarraitu: “Gaztelania eta ingelesa gero ere erabiliko dituzte eta terminologia ikasiko dute. Euskara gero ez dute ikasiko. Euskarazko matrikulazioa sustatzeko asmoa daukagu”. Oraindik ez ditu erantzunak aztertu, baina Medikuntzako ikasle guztiei, gai horren inguruko inkesta egin die.

Osakidetza dute aurrez aurre

EHUk hitzarmena du Osakidetzarekin irakasleak kontratatzeke. Bi egitura oso desberdin dira eta harremanak zaildu egiten dira. Desberdintasunak desberdintasun, batzuetan borondate falta antzematen da, aukerak egonda ere, ospitaletako hainbat zerbitziburuk mediku euskaldunak irakasle izateko hautatu ordez atzean uzten baitituzte. Maria Fuentes ikasleak ez daki nola funtzionatzen duen EHUn eta Osakidetzaaren arteko hitzarmenak, baina adibide bat eman digu: “Lagun bat Gurutzetako ospitalean ari zen praktikak egiten, Neumologia zerbitzuan. Bi mediku euskaldun ezagutu zituen, biak prest zeuden irakasgaia euskaraz emateko, baina ez zieten halako plazarik zegoenik ere esan. Nire lagunak neumologiako irakaslea erdalduna zeukan. Zergatik ez zieten deitu mediku euskaldunei?”. Ikasleek irakasle euskaldunak eskatu dituztenean sarri ondoko erantzunak entzun dituzte: ez dago nahikoa mediku euskaldun eskolak emateko moduan,



plaza elebiduna atera dugu baina ez da euskaldunik aurkeztu...

Itziar San Martin eta Jon Zarateren ustez, EHUK badauka zer egin Medikuntza euskaraz irakats dadin, baina gauza asko ez daude EHUren esku, Osakidetza-aren ardurapean baizik. Irakasleak kontratatzea gakoa dela diote, eta ezinean dabilta. Bi hitzetan kontatuta prozesua ondokoa da: EHUK onartu du plaza bat ateratzea halako irakasgai emateko Medikuntzan. Euskaraz C1 maila (EGA maila) duen irakaslea kontratatuko da, bai ala bai. Osakidetzari profil horretako medikua eskatzen zaio, eta hark esango du badaukan ala ez. Zer gertatzen da? Behin baino gehiagotan dagokion Zerbitzuak erantzuten duela ez duela mediku euskaldunik postu horretarako. Mediku euskaldunik “ez dagoenez” eta plaza elebiduna denez derrigor, ikasturte batez aldi baterako irakaslea arituko da. Irakasle hori erdalduna izan daiteke.

Zarateren ustez, Medikuntza gradua berezia da, beste erakunde bateko langileekin egiten dute lan, irakasle asoziatuak dira, eta gainera medikuak. Euskarazko adarra osatze bidean, hainbat muga aipatu ditu: EHUK aurrekontu mugatua du eta sailek ezin izaten dituzte nahi adina irakasle plaza atera; irakasleak kontratatzerakoan baldintza geografikoa bete behar da, alegia, Txagorritxuko unibertsitate-ospitalean dauden ikasleei bertako medikuek eman behar dizkiete eskolak, ez adibidez Donostiakoek, aldi berean baitira irakasle eta mediku; irakasle espezializatuak izan behar dute, irakasgai bakoitzeko irakasle bat behar da, kardiologiako halako gai zehatz ematekoa, neumologian beste halako irakatsiko duena... Hala dio Zaratek: “Mugak dira, baina ez dira gaindiezinak”.

Kontratazioa giltza denez, Osakidetzarekin plazak eskaintzeko bideak hobetu nahi izan dituzte: “Prozesua gardenago egitea nahi dugu. Ikasleek kritikatzin dute, eta guk ere ikusi dugu, plazak atera eta Osakidetzako zerbitzuek haien intereseko medikuak eskaintzen dituztela”. Osakidetzak lan moldea aldatzea proposatu zien: EHUren plazak Osakidetzako Euskara zerbitzura bideratuko dira eta ospitaleetako zuzendari medikuen bidez deialdi zabalak egingo dira. Mediku batzuk plazak atera zirela ohar-tu ere ez ziren egiten batzuetan, –dio Zaratek–. Euskarako errektoreordea po-



Goian, Donostiako Unibertsitate-Ospitalean ikasleak atsedean hartzen, eta behean alboko eraikinean, alegia, ospitalean bi ikasle lanean. Donostiakoa da irakasgune euskaldunena.

IZASKUN ELEZGARAI, MEDIKUNTZA ETA ERIZAINNTZA FAKULTATEKO IRAKASLE ETA IKERTZAILEA

“MEDIKUNTZA GRADUA EUSKAL HERRIAK BIZI DUEN EGOERAREN ADIERAZLE EGOKIA DA”

» **MARIA FUENTES, IKASLEA:**

“Presio demografiko handia daukagu, Espainiako Estatuko edonork lor dezake plaza EHUn, jan egiten gaituzte, eta euskarazko plaza kopururik ez dago finkatuta”

» **ITZIAR SAN MARTIN, DEKANORDEA:**

Ikasle euskaldunak gaztelaniazko adarrean matrikulatzeaz: “Gaztelania eta ingelesa gero ere erabiliko dituzte eta terminologia ikasiko dute. Euskara gero ez dute ikasiko. Guk euskarazko matrikulazioa sustatzeko asmoa daukagu”

» **JON ZARATE, EUSKARAKO ERREKTOREORDEA:**

“Ikasleek kritikatzten dute, eta guk ere ikusi dugu, irakasle plazak atera eta Osakidetza zerbitzuek haien intereseko medikuak eskaintzen dituztela”

Medikuntza euskalduntzeko dauden oztopoez galdetuta, fokua urruntzeko ariketa egin duzu.

Estrategia eta erabaki politiko falta dago atzean. Herri ikuspegitik aztertu behar dela iruditzen zait. Arazoa ez da EHU, arazoa da EHU Espainiako araudiaren menpe dagoela, horrek esan nahi duenarekin. Horrez gainera, EHU aldian aldiko erretoretzen erabakien menpe dago eta horiek irizpide politiko-kultural euskaltzaleagoak edo kontrakoagoak izan ditzakete. Medikuntza gradua Euskal Herriak bizi duen egoeraren adierazle egokia da.

Osakidetza zeresan handia du.

Bigarren zikloa Osakidetzako ospitaleetan egiten dute ikasleek. Ospitaletik ospitalera egoera desberdina bada ere, gehienetan oso giro erdalduna dago. BAME (Barneko Medikuko Egoiliar) azterketa gaztelaniaz egiten dute. Lanbidea bera ere gaztelaniaz garatuko dute. Arazoa egiturazkoa da eta EHUtik askoz harago begiratu behar da.

Oso bitxia egin zaigu jakitea plaza elebidunak hutsik geratu daitezkeela, mediku euskaldunak irakasle lanetan aritzeko prest egonda ere. Ulertzen zaila da.

Hori Osakidetzako arduradunen eskuetan dago eta orain arte Osakidetzan bo-

tereguneak erdaldunak izan dira, eta ikusten dugunez, medikuntza arlo oso hierarkikoa da.

Hemengo ikasleek espainiarrekin lehiakortasun handia dutela-eta, euskarazko adarra ahulduko den beldur dira.

Lehen esan dut herri ikuspegia behar dugula. Orain, gutxi gorabehera, 200 gaztelaniazko adarrean eta 100 euskarazko adarrean gabiltza. Lehenik eta behin, pentsatu beharko litzatekeena da zenbat profesional euskaldun behar diren, eta horren arabera kalkulatu beharko da fakultatean zenbat ikasle euskaldun sartu behar diren. Nire ustez, denek izan beharko lukete euskaldunak, gure helburuak Euskal Herriko mediku guztiak euskaldunak izatea izan beharko lukeen moduan.

Baina horretarako eskuduntzarik ez du EHUK.

Argi ikusten dut hemen erabaki politikoak eta estrategia bat behar direla, hasieran esan dudana moduan, eta beste alde aurrean izango dugula. Euskaldunak gara eta geuregatik begiratu behar dugu, bestela nork begiratu du gugatik? Nork bermatuko du euskalduntze prozesua EHUn? Nork arautuko du EHUn? Gatatza sortuko du, jakina, baina aurre egin behar diogu.

zik ari da lanean Osakidetzarekin, batik batik giza baliabideetarako zuzendaritza-ekin eta Euskara zerbitzuarekin.

Hizkuntza Plan estralurtarra

Fuentes ikaslea halako tonuan entzun dugu elkarrizketa egin diogun bitartean: plaza elebiduna ateratzen da, baina ez dakigu zergatik gero urtebetez elebakar den; irudipena daukagu Osakidetzan azpajokoan ibiltzen direla eta nahi duten medikuak aurkezten dituztela irakasle plazetarako, baina ez dugu frogarik... Eta kazetariaren galdera: Dena hain da zalantzarria, lausoa? Hizkuntza Pla-

na izango duzue bada? Horrek zer dio? Harritu egin da Hizkuntza Planaz galdetu diogulako: “Hizkuntza Plana? Pasibitate da hemen nagusi. Euskararen inguruko ekintzak *lipdubak*, narrazio lehiaketak, eta horrelakoak izaten dira. Guk karrera euskaraz nahi dugu!”

EHUko Euskararen II. Plan Gidaria 2013-2017-ren arabera, Medikuntza derrigorrezko irakasgai guztiak euskaraz ematea lortu behar da urte hau bukatzerako. 23. orrialdeko datuak ikusita, miraria litzateke plana betetzea. Zaratek aitortu du plana ez datorrela bat errealitatearekin. Aurten bukatu-

ko da bost urteko plana eta beste bat egin beharko da, zein helburu izango dituen, ez digu aurreratu Zaratek: "Ikusiko dugu nola egin. Oraingo plana oso orokorra da eta agian beste modu batez landu behar dugu".

» **IZASKUN ELEZGARAI, IRAKASLEA:**

"Arazoa ez da EHU, arazoa da EHU Espainiako araudien menpe dagoela, horrek esan nahi duenarekin"

Mediku ona / mediku euskalduna gainditzeko beharra

Ekainaren 27an eta 28an *Osasuna eta Hizkuntza* jardunaldiak izango dira Bilbon, EHUren Udako Ikastaroen antolaturik. Medikun on / mediku euskaldun eztabaida tabernatik atera eta akademiara eramatea aldarrikatu dute Zaratek eta San Martinek. Erdigunean pazientea jarri behar da, eta osasun arretaren kalitatea hizkuntzarekin lotu behar da: "Horren ebidentziak lortu behar ditugu ikerketa bidez eta eztabaida gizartera zabaldu". Ikerketa lerro horri ikasleek ere heldzea nahiko lukete, Bidane Petralandak (ARGIA, 2017ko ekainaren 4an elkarrizketatua) egin duen moduan. Petralandak Osakidetza barruko euskarazko zirkuituak aztertu ditu. Berea da Medikuntzan osasuna eta euskara lotu dituen gradu amaierako lehenengo lana.

Medikuntzako ikasleen aldarrikapen bakarra ez baita haien eskubidea kontuan hartzea, hau da, ikasketak euskaraz egitea. Ikasleok mediku euskaldun izan nahi dute. Kalitatezko arreta eskaini nahi dute, beraz, euskaraz eman nahi dute zerbitzua. ■

EHU-KO OSASUN ZIENTZIETAN EUSKARA

MATRIKULAK EUSKARAZ*

2016-2017 ikasturtea	Ikasle kopurua GAZTELANIAZ	Ikasle kopurua EUSKARAZ	GUZTIRA
Medikuntza eta Odontologia Leioan (1. zikloa)	805	535	1.340
Gasteizko Medikuntza Irakasgunea (2. zikloa)	142	48	190
Basurtuko (Bilbo) Medikuntza Irakasgunea (2. zikloa)	201	74	275
Gurutzetako (Bilbo) Medikuntza Irakasgunea (2. zikloa)	174	101	275
Donostiako Medikuntza Irakasgunea (2. zikloa)	164	330	494
Erizaintza Donostian	88	149	237
Erizaintza Leioan	401	289	690
Farmazia Fakultatea	707	662	1.369
Guztira	2.682	2.188	4.870
	%55,07	%44,93	

* Matrikula euskaraz egiteak ez du esan nahi irakasgai guztiak euskaraz jasotzen dituztenik, ondorengo bi tauletan ikus daitekeen moduan.

IRAKASGAIK EUSKARAZ (%)

Gradua	2014-2015 ikasturtea	2015-2016 ikasturtea
Medikuntza Leioan (1. zikloa)	%100	%100
Gasteizko Medikuntza Irakasgunea	%0	%0
Basurtuko (Bilbo) Medikuntza Irakasgunea	%55	%67
Gurutzetako (Bilbo) Medikuntza Irakasgunea	%41	%52
Donostiako Medikuntza Irakasgunea	%68	%71
Odontologia	%59	%59

IRAKASLE-IKERTZAILE PLAZA ELEBIDUNAK

Medikuntza Leioan (1. zikloa)	%46,62
Gasteizko Medikuntza Irakasgunea	%4
Basurtuko (Bilbo) Medikuntza Irakasgunea	%25
Gurutzetako (Bilbo) Medikuntza Irakasgunea	%26,39
Donostiako Medikuntza Irakasgunea	%46,47

Iturria: EHU.

BABESLEA: IBARRAKO UDALA



IBARRAKO
udala



San Bartolome plaza, 2
20400 Ibarra
www.ibarra.eus
EUSKARA ZERBITZUA:
☎ 943 673 827